

Goxo-goxo

IÑAKI SEGUOLA



BEREZ behar omen du eta bistan da ni ez naizela. Zer gero? Ea antzik ematen diotzen.

Ez bat eta ez bik, baizik hiruk, hiru oilanda gaztek berriketan esanak dakartzat hona, erositako prezioan salgai, neure baitarik deusik erantsi gabe, eta paper honetan idazten ditudanez hizpide dutela hirurek ere.

Kontakatu fin baten bitartez jakin dut I.-ren zalantzaren berri: emegaturik bizi ote naizen egiten omen du galde. A.-k berriz, ohitura baitu kartzat entzindizeko elkarren berriak, paper urrindatuan idazten di esanez ezagun dudala ez nagoela amorosurik, besteta ez omen nuke idatziko hemen egiten duan bezala. Eta, akzenik, K.-k bertatik bertara bota dit erabat nagoela zatirerra eta zakarrera iraulia, eta ez ote dudanez egundo asmatuko 'bizitzako gauza politetz' idazten.

Zer esango dizuet? Bapo erasanda utzi nauela zuen haserre emeak, eta hementxe bertan doala zakartziko bihotz-erre hau, behingoz bederen, bere gozo-almazena zabaldu eta jario librean barraizterea. Eta, hala, ezitziko luma goxaberritu honek idatzirik utzi nahi du. Urepelgo larre-poetaren airean: kargu hartu didazue baina maite zaituztet oraindik. Eta segi nezake aire deliziosu hontan erranez bihoztaren barregno mamituk oip dizeudala honako hau irakurtzean aixkire bihotz-goxo wonderpotrodon banaren ondoan etzanik gerta zaitzetzela. Are gehiago: baldin kalean nor ikusiko banu ahotik ezten daniola, lehen kolpetik pentasuriko dut zuen ezkutuko poz-iturri sakratuenetan gozo-bila ibilia dela, zurrupedanedokko.

Zer? Goxo portatu al naiz? Zail da gozo-gauzari tamaina hartzen eta liriekeena da goxo-pasaturik gelditu ziana ere. Baldinbaitere, ez ahal zizuen botalarririk emango behintzat, neurritz fuerako ezta-ixurtze honek!

Kataluñan gaindi

TXILLARDEGI



CIEMENen Kongresoa dela-ta, Kataluñan gaimdi ibili naiz joan den astean. Jende asko ez partaide: 80 bat guztira.

Txosten nagusiak bretoinek aurkeztu dituzte (Choucq), galiziarrek (García Negro), kataluñarrek (Pauyo), galestarrek (Thomas), eta euskaldunok (Tobarek eta Ierro hauek idatzitako dituen honek).

Gure arteko adostasuna osoa da: 'Europa' ofiziala Estatuaren Europa da; ez Estaturik gabeko herriona. Azkeneko eguneari mintzatu zaizkigun bi euro-parlamentariak (Antoni Gutiérrez, Iniciativa per Catalunya; eta Joan Vallvé, Convergencia) ondorio horretara eraman gaituzte: Brusela-Strasburg-eko 'Europa' horretan, Estatuakotako gobernuak agintzen dute goitik behera. Euskal Herriak jai dauka instituzio horietan.

Gironako kazeta den 'El Punt' egunkariak eman ditu ondoenik Kongresari buruzko gorabeherak. 'El Punt' hori, esan beharrik ez dago, katalanera husez argitaratzen da; eta 'Avui-k' berak baino zabalkunde handiagoa du. Eta ez da Gironako bakarra... 'Diari independent, català, comarcal i democràtic' gisa aurkezten du bere burua.

Igandean beste Kataluña ezagutzera eraman gaituzte: Garrotxa, Empordà, Besalú, Jaietxeetan, dendetan, kalean, dena katalanera. Erabilpena: % 100.

Han ginelarik zabaldu da berria: Joan Corominas jakintsu apartaren lan erraldoia (Paisos Catalans-etako Toponimiaren bilketa osoa) kaleratzen hasia dela: 9 liburuki. Egin dizkieten elkarrizketak katalanera husez agertu dira. 'Hango Mitxelenaik' 90 urte ditu orain.

Kongresoaren ondoko Agiria, hamar puntutan, bikaina izan da; eta herrian Auto-Determinazio eskubidearen aldeko dei sutsua. Nork non entzungo?

EL DIARIO VASCO

Bilbainada San Mamesen

Kontua bekatarik direnez gero, huts egingo dut: Bilboko Athletici buruz mintzatuko naiz. Euskadn aste honetako gertakari nagusia ez da gobernuaren eraketa izan, ez eta Donostiako garabia geldiaraztea ere, lehoiek San Mamesen egindako balentria baizik.

Ez da komenigarria gipuzkoarren, bizkaitarren eta arabarren arteko auzi tribal hauek orain zabalzea, hain zuzen ere hautestontziek atomoraino zaitu gaituzten une honetan. Baina Bilbo-Behobiaren alde honetatik erreparatuta, asteazkeneko ikuskizuna erabateko bilbainada izan zen, hori auzoen afektuz esanda. ETBk egindako ahaletzetatik (bikaina, ezbaizik gabe, telebista-ikuskizun gisa) hasi eta Ardanza lehendakariari korbata abandotatuz mukuratu beteta ze-

goen polkoon lehoia emateko ekitaldiraino, dena Bilbao way of life-aren benetako goraiapena izan zen. Baina errematea Erztaintzaren Bandak zelaiaren egindako desfilea eta Gora ta gora eta God save the Queen-egindako interpretazioa izan zen. Un ingles vino a Bilbao interpretatzea bakarrak falta zen... Baten batek esan zuen bezala, burua jaso balu Sabino Arana zoriotsu egingo zukeen ueua izan zen.

Zorionak eman behar zaizkio Athletici lortutako garaipenagatik. Baina Gipuzkoako urritasunetik beti ere irribarre batekin errepapratzen zaie Nerbioi aldeko ospakizun horiei (hasi gabarren pasotetik eta eraikin handietako aurreneko harriak jartzeko ekitaldi dietaraino). Bilbainada-rekiko mirespena da. Eta barkatu esateagatik: inondik ere ez baita nire asma, berriro diot, gerra tribalak bizitzea. Hori bai litzateke eta bekatu egitea egunotan Ajouria Enetik pasatzen ari den ibai nahasian.

MITXEL EZQUIAGA

HEMEROTEKA



Zarpi urtero bezala!... Nire neska alaba aurkeztu nahi dizuet!

PLANTU / LE MONDE

ZUZENDARIARI

Non elkar ikusi

Azaroaren 3an Iñigo Fernandez oriotarrak bere iritzia eman zigan aldeaz aurretik nik idatzituen 'Telebista-etzabaidariek gabeko hauteskundeak' artikuluarri buruz.

Guztiz kontutan hartzea da irriti-telebistarako prestakuntzan ari omen den ikaslearen iritzia. Hala ere, Iñigo Fernandez-ek ez du nonbait afer honetan izan den dokumentazioa eskutan hartzerik izan eta, ondorioz, beldur naiz ez ote diren bere argudioetan arazoi pitina zein ausardia puntua elkarhasian agertzen.

Ez naiz zaharrak argitzen arituko eta bai, ordea, berriak erakartzen saiatuko:

1.- Txalogarri bezain miresgarri iruditzen zait zenbaitrik Hauteskunde Batzordeari datxeon begirunea. Ez diot nik atxikimendu izpirik ukatuko, baina ez dut ulertzen zergatik batzuk Hauteskunde Batzordea jainkoizteko prest dauden, Eusko Legebiltzarra eta EIT-Bren Administrazio Kontseilua mesprezatzen duten bitartean. ETBn hirurak ditugu kontutan hartzen eta hiruror ordenak betetzen, bistan denez.

2.- Gure gizarte honetan, oro har, bi eratako herritarrik daude: baitetik, indarrean dauden joko-arauak eta darizkien legeak betetzeko gertu gaudenak eta, bestetik, gustuzten zaizkien joko-arauak eta komeni zaizkien legeak besterik betetzeko prest daudenak.

3.- Iñigo Fernandez-ek honelatsu amaitzen zuen bere gutuna: «Izan dadila informazio plural eta independente baten alde. Monopo-

liorik ez!». Noski, beinke eta jakina, eta Anaitasuna bai eta Gorrotorik ez, eta Egia bai eta Gezurrik ez... Eta Gora Askatasuna, Aupa Justizia, Biba Bizitza etab. etab. Guztiz honetan bat etorri daitezke Iñigo Fernandez ikasle gaztea eta Luis A. Aranbarri jaun zaharra, baina guzti hau zelan egiten da? Are gehiago, non elkarrekin konpontzekotan, non elkar ikusi beharko genuke? Hauteskunde Batzordean ala Eusko Legebiltzarrean?

LUIS A. ARANBARRI

Turreta (Bizkaia)

Intsumisioa

Intsumitu ugari gose greban omen dira bere zuzengabeko gartzelaratze, dispersioa eta bere ahotsa isiltzen behartzen saiatu direnei erantzun bat emateko.

Bere delitua: hiltzen ikasten nahi ez izatea; bakarrak heriotza, gerra, suntsipen eta eksplozioa ordezkatzan dituen Ejerzitua gizakien egiazko eta funtsezko baloreen aurka, hau da, askatasuna, giza-justizia eta anaitasunaren aurka atentatzen duen sistema baten funtsezko bastioia da.

Gizaki baten bizitzak edozein bandera eta edozein aberrik baino gehiago balio du. Bosnia gehiagorik ez! Gaizki deitutako gizaldekoko laguntza nola hipokresiaz txaluten duten ezin dugu jasan. Gizaldekoko laguntzarik onena hiltzen ikastearen aurka egotea da.

Pakea inoiz ez dute ez ejerzitu ezta politikoez ere egingo. Intsumituak egiten ari dira. Hemen eta orain...

Horregatik Gipuzkoako Konfederakuntza Lanaren Nazionala-Gazteteki Libertaino intsumituen alde egingo diren protestetan eta desmilitarizazioarengatik parte har dezazuten ditzen dizuzte:

Guztiz horientzat besarkada libertaino eta solidarioa bat.

Intsumisioa askatasuna da!

MIKEL ELSO INSAUSTI

Donostia

EHU euskara barik

Penagarria da EHU deitzen den honetan, gure ikasketak euskaraz burutu ezin izatea. Horregatik, hori lortzeko borrokan dabilzen Arte Ederretako ikasleei gure elkartasuna eta animuak helarazi nahi dizkiegu. Bide batez, Bilboko Ingeniaritza Eskolan ere Euskararen egoera oso txarra dela salatu nahi dugu. Badira bi urte euskal irakasleen kontratazioa blokeatuta dagoela. Industri Ingeniaritzan, lehenengo maila eta bigarrenengo erdia baino ez dago eskaldundurik, Telekomunikazio adarrean, berriz, bat ere ez!

Bukatzeko, dei egiten diegu gainerako zentroetako ikasleei beraien egoera salatu eta antola ditezkeen ekintzetan parte har dezaten.

INGENIARITZAKO
TXANTXANGORRI EUSKARA
TALDEA


GAIA JARRITA

Zesta Mundialeko Finala

Hormarik beltzenetan bilera mundiala. Rekalde eta Goitiak daukate finala Jauregi-Aranburu bikoteak bezala. Zaratatsua omen da txaparen azala, munduko onena nor den oihu egin dezala.



JOSE BILLETU IMAGOJEASKOA



Batzorde: P. nekidea, 72564 E / Lege Godaldua: SS 800/90



OJIK IKUSKATUTAKO HEDAPEÑA

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Kontseiluei Editorialeko Zuzendariak: JOAN MARI TORREALDA

Kontseilari Ordezkariek: IÑAKI URBA

Gereotek: FERMIN LAZKANO

Zuzendaria: MARTXELU OTAMENDI

Zuzendariordeak: LIZIEN ETXEZAHARRETA

Publizitateak: MARI JOSE SARASA

HELBIDEAK

Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industrialeketa 01-02 Pabilkua / 20100 Lasarte-Oria / T. 37 15 45 / Faxa: 36 54 93

Egoitza soziala, Publizitateak eta Administrazioa: Antso Jauregia, 16-1 / 20010 Donostia / T. 46 90 22 / Faxa: 45 59 57

Araba: San Antonio, 20-1. erler. / 01005 Gasteiz / T. 23 38 72 / Faxa: 23 38 73

Nafarroa: Ibañe Monastegia, 45-13. esk. / (Iruñea dorrea) / 31011 Iruñea / T. 17 81 78 79 / Faxa: 17 80 77

Bizkaia: Zabalburu Enparantza, 2-1. ezkerre / 48003 Bilbo / T. 410 40 46 / Faxa: 410 37 13

Lapurdi: Nafarroa Beherea / Zuberoa: Pamiplon, 14-1. 503 Post. katekila, 64100 Bonaia / T. 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11